



Bere Maiestatearen Gabonetako mezua

2019ko abenduaren 24a

Gabon.

Duela bost urte, Gabon zoriontsuak opatzeko ohorea izan nuen aurrenekoz Errege gisa, baita maitasunez beteriko mezua eta urte berrirako desira onak helarazteko ere. Orduko hartan, halaber, Espainia leialtasunez, arduraz eta gogoz zerbitzatzeko konpromisoa azaldu nuen.

Hortaz, eskerrak eman nahi dizkizuet gau berezi honetan zuekin minutu batzuk partekatzeko aukera berriz emateagatik. Beste ezer baino lehen, noski, zoriona eta bakea opa nahi dizkizuet Erreginarekin, Leonor Printzesarekin eta Sofía Infantarekin batera, gure senide eta lagun maiteekin biltzen garen data hauetan.

Une honetan, ezin ahantz ditzakegu Espainian azken egunetan gertatu diren uholdeen ondorioak —baita zoritzarrekoak ere— bete-betean pairatu dituzten familiak eta pertsonak, urtean zehar izandako beste hainbeste legez.

Agidanez, garai latzak bizi ditu munduak, eta hala da. Beharbada, ez dira inoiz guztiz samurrak izango; egungoak, baina, zalantza handiko sasoiak dira, aldaketa sakon eta bizkorrekoak hainbat arlotan, eta ezinegona eragiten dute gizartean, gure herrialdean zein handik kanpo: Aro teknologiko eta digital berria, Europar Batasunaren norabidea, migrazio-mugimenduak, gizonen eta emakumeen arteko lan-desparekotasuna edo klima-aldaketari eta jasangarritasunari heltzeko modua, besteak beste. Oso gogoan ditugu auzi horiek guztiak, eta gure bizitzetan eragiten dute, inolako ezbairik gabe.

Horrez gain, lan-ezak —gure gazteen artean batik bat— eta familia kalteberenen zailtasun ekonomikoek jarraitzen dute izaten ardura nagusia gure herrialdean. Ezin uka daiteke desberdintasunak areagotu dituela krisialdi ekonomikoak —hazkunde eta garapenarekin batera—, bai munduan, bai hemen.

Gainera, beste zenbait kezka larri ditugu Espainian: lehen aipatutako iraultza teknologikoak gure gizarte-kohesioan eragiten du, herritar ugari konfiantza galdu dute erakundeekiko eta, nola ez, Katalunia.

Orain, joan den azaroaren 10eko hauteskunderen ondoren, konstituzio-prozedura betean gaude murgilduta, Diputatuen Kongresuak Gobernuko Presidentetzarako proposatutako hautagaiari konfiantza emateko ala ukatzeko. Hala, bada, Kongresuari dagokio, gure Konstituzioaren arabera, espainiar guztien interes orokorrerako erabakirik egokiena hartzea.

Hasiera esan bezala, garai zailak bizitzen ari gara. Horrexegatik uste dut, hain zuzen ere, gure buruarengan eta Espainiarengan konfiantza irmoa izan behar dugula, inoiz baino gehiago, beti izan baita gai aurrera egiteko, etorkizunari arduraz, eskuzabaltasunez eta zuhurtziaz buru egin izan diogunean; ausardiaz, baina baita gogoetatsu eta lasai ere. Nahikoa arrazoi badugu konfiantza hori izateko.

Herritarren izaeraren, gizartearen indarraren eta Estatuak behar bezala funtzionatzearen mende dago, hein handi batean, herrialde batek aurrera egitea.

Pasa den ekainaren 19an, Espainia osoko 41 herritarri Meritu Zibilaren Ordenaren gurutzeta emateko ohorea izan nuen. Emakume eta gizon, heldu eta gazte, askotariko jatorri eta egoeretakoak. Duintasunaren benetako eredu eta gure gizarteko onenaren adierazgarri dira.

Aukera izan nuen zuzenean eskerrak emateko eskuzabaltasuna eta jarrera solidarioa agertzeagatik, beren bizia emateko eta gainditzeko gai izateagatik, besteei laguntzeko prest egoteagatik, denon ongizatea interes partikularren gaineratik jartzeagatik eta kontrako egoeretan kemena erakusteagatik; herritar gehienak inspiratzen dituzten gizalegezko bertuteen adierazle dira ezaugarri horiek guztiak.

Dudarik gabe —eta bereziki azpimarratu nahi dut honako hau—, espainiarron nortasuna urratsez urrats eraikiz joan dira jarrera horiek, bai eta gizartea moldatuz ere, demokraziaren lau hamarkada hauetan zehar.

Sakon aldatu da gizartea, gure historian lehenago ez bezala; gainerako gizarte aske eta demokratikoekin partekatzen dituen balio eta jokabideen arabera bizi da; europarra eta iberoamerikarra da, eta hala sentitzen da; ez dago bazterturik, mundura irekita baizik, gizarte globalean erabat integratuta.

Lasaitasun eta adore laudagarriekin —eta arrakasta handiz ere bai— egin die aurre gizarteak egoera zailei, non iraunkortasun eta heldutasun paregabea erakutsi baitu.

Laburbilduz, gizarte ekintzaile eta eskuzabala, esparru anitzetan sormen handia eta lidergo eztabaidaezina garatzen dituen, hala nola ingeniaritza, medikuntza, zientzia, kultura, kirolean eta enpresan.

Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoan bizi gara, zeinak, bizikidetzasun askea bermatzeaz gain, herrialde moderno bihurtu baitu Espainia, oinarritzeko gizarte-prestazio eta zerbitzu publikoekin, hezkuntza eta osasunean, besteak beste; abangoardiako komunikazio- eta garraio-azpiegitura sendoa du, gainera, eta gutxi bezala bermatzen du herritarren segurtasuna.

Nazioak, orobat, nazioarteko harremanetarako posizio pribilegiatua du, haren bokazio unibertsal ukaezinari, historiari eta kulturari esker. Horren guztiaren lekuko dira bisitatzen gaituzten pertsonak, hemen inbertitzen dutenak eta gure artean bizitzea erabakitzen dutenak.

Elkarrekin, beraz, asko eraiki dugu, eta nabarmen egin dugu aurrera. Harro senti gaitezke gure herritarrak inspiratzen dituzten balioez, gizartearen energia, bizitasun eta dinamismoaz eta Estatuaren irmotasunaz. Uste dut garrantzitsua dela ozen esatea, ez gaizki ulertutako autoestimuairengatik, baizik eta balioetsi beharreko errealitatea delako.

Errealitate horretan, ezin gara muturretara joan, ezta gure gabeziak edo akatsak isilarazten dituen autokonplazentzia erori ere, eta ezin dugu lortutako ondare zibiko, sozial eta politikoa ezereztan duen autokritika suntsitzailea egin.

Ezbairik gabe, asko dago oraindik egiteko, hobetzeko eta berritzeko. Hori dela eta, gure indar eta ahultasun guztiez ohartu behar dugu, garbi eta era objektiboan; horrez gain, mundua nola eta norantz doan jakin behar dugu, ahalik eta modurik errealisten eta osoenean.

Erdietsitako guztia —beste zenbaitetan esan bezala— ez da berez gertatu. Aitzitik, milioika espainiarrok, Konstituzioari esker, urte luzez balio berberak partekatu izanaren emaitza da; balio horietan oinarritzen dira, preseski, bizikidetzasun, baterako proiektu handiak, sentimenduak eta ideiak.

Balio horien artean azpimarratu nahi dut, lehenik eta behin, ados jartzeko nahia; gogo horrek, izan ere, gure historiako jazoera ugari markatu zituzten intolerantzia, ezinikusi eta ulertezintasunez beteriko hormak eraitsi zituen, erantzukizunari, adiskidetasunari, zintzotasunari, elkarrizketari eta oso bestelako ideologiak dituzten pertsonen arteko errespetuari esker.

Bigarrenik, elkar ulertzeko eta gure aldeak Konstituzioa betez bateratzeko nahia, bereizten gaituen lurralde-aniztasuna aitortu eta indartsu egiten gaituen unitatea gordetzen baititu.

Hirugarrenik —eta azkenik—, berdintasuna, solidaritatea eta askatasuna babestea eta sustatzea, gure gizartea egituratzen duten oinarriak baitira; hala, baterako bizitzaren gizalegezko espiriturik onenaren adierazgarri izango dira tolerantzia eta errespetua.

Urte luze daramate balio hauek gure artean, eta egungo Espainiaren ezaugarri dira; baina ezin ditugu ziurtzat jo, ezta beren hauskortasuna ahaztu ere. Horregatik, ahal den guztia egin behar dugu haiek indartzeko eta hondatzea saihesteko.

Denbora ez da gelditzen, eta Espainia ezin da mugiezin geratu, ezta gertakarien atzetik joan ere. Bidea egiten jarraitu behar du, bere baitan itxi gabe, antzina agitu legez; begirada jaso behar du etorkizuna adierazten duten gizarte, zientzia eta hezkuntzako aldaketa handien aurrean atzean ez gelditzeko.

Ez dira errazak aurretik ditugun erronkak, baina, historia hurbilean maiz gertatu den bezala, ziur nago gainditu egingo ditugula. Izan dezagun konfiantza gure buruarengan, gure gizartean; fida gaitezen Espainiarekin eta euts diezaiegun balio demokratiko partekatuei arazoak konpontzeko; zatiketarik eta liskarrik gabe, bizikidetzara urratu eta etorkizuna pobretu besterik ez baitute egiten.

Ahalmen handia du gure herrialdeak. Asmo handiak izan behar ditugu. Egin dezagun aurrera gogoz. Denok elkarrekin. Badakigu nola, eta bidea ezagutzen dugu...

Gogo horrekin, Eguberri zoriontsuak opa nahi dizkizuegu Erreginak, gure alabek eta laurok, baita 2020 urte berrirako onena ere, bereziki herriaren alde lanean urrun zaudeten guztioi eta une honetan oinarritzko zerbitzuak ematen dituzuenoi.

Eguberri on. Bon Nadal. Boas festas.